

BAZTERTZEA

EMOZIOAK LANTZEN

Interes, balio edo duintasunik **gabe** sumatzen dugun **pertsonenganako etsaitasun sentimendua** da.

Honek urruntze eta **mesprezioa eragiten du**.

Aukeratu zein egoerataz senti dezakegun hori, hiru dira erantzun egokiak:

Indarkeria erabiltzen dutenei indarkeriarik gabe aurre egiten diegunean.

Norbaitek gure aldamenean egon nahi ez duenean, iraintzen gaituztenean edo iseka egiten digutenean.

Gehiegi larritzen garenean.

Lagun batek kasu egiten ez digunean.

Talde batean jolasten uzten ez digutenean.

Egin dugun hutsegite edo okerrari aurre egiteko gauza garenean.

KABI GABEKO ZIKOINA

Urtero bezala, garai berean zikoinak herriko kanpandorrera itzultzen dira. Orduan jakiten dugu gure artean egongo direla beren kumeak hegan egiten ikasi arte.

Aurten berriz, ez dut uste hemen geldituko direnik kanpandorreko konponketak direla eta, habia kendu baitiote.

Egun batean zikoina bat iristen ikusi eta begiradarekin jarraitu nion bere betiko habia ez zegoela konturatzean zer egingo ote zuen ikusteko.

Zikoinak, erabat harrituta, ingurua miatu zuen bere habia kokatzeko leku berri baten bila.

Hegan hasi eta herriko bigarren teilatu gorenera, burdindegiko Benitorenera, abiatu zen.

Teilatuan pausatu bezain laster, Benito etxetik irten eta harrika hasi zitzaion hau zioen bitartean:

-Alde hemendik ! ez dut nahi zuk nire teilatua zikintzea !

Zikoina gizajoa beldurturik hegan alde egin zuen.

Bila zebilela, argi indarreko zutoinean gelditu zen atsedean hartzera.

Handik hurbil egokia izan zitekeen tximinia zuen teilatua ikusi zuen eta harantz abiatu zen makilak, abarrak , plastiko zatiak,... eta bidean aurkitzen zuen guztia hartuta. Janari dendako jabea zen Lumi andrea irten, ikusi eta garrasika hasi zen:

-Joan hadi hemendik zikoina zikin ! ez zaitut nire teilatuan ikusi nahi , bila ezazu beste kanpandorrea han hobeto egongo zara eta !

Zikoina, inork etxeko teilatua utzi nahi ez eta, herrian gelditzeko toki bila nola zebilen ikusteak errukitu ninduen.

Berriro leku guztietatik bere habia egiteko toki lasai baten bila hasi zen, dorre garai bat ikusi eta harantz abiatu zen.

Zikoinak ez zekien toki horretan herriko urtegia zegoela, eta a ze iskanbila sortu zen Tomasek eta Casimirok hor ikusi zutenean.

-Joan zaitez zikoina, ura zikinduko diguzu eta ! alde etorritako bidetik !- eta harriak eta makilak bota zizkioten.

Zikoina zelaian negarrez ikusi nuen, eta hau zioela entzun nion:

" Inork ez dit nire habia egiten uzten, inork ez nau ondoan ikusi nahi, eta nik ez dut inongo kalterik egiten... Zer egingo ote dut orain? leku honetan jaio nintzelako ezagutu eta maitatzen dut, baina jendeak bere inguruan ez nauela ikusi nahi konturatu naiz. Ez dut ulertzen jendeak zergatik ez nauen ondoan izan nahi. Orain konturatu naiz ez zitzaiela axola ni kanpandorrean izatea, urruti bainengoen."

Zikoinak negarrez jarraitzen zuen eta berarengana hurbildu nintzen. Zikoina honela ikusteak bihotzmina ematen zidan eta zer egin ez jakin arren, berarengana hurbildu nintzen.

-Zatoz nirekin, zikoina ! zure habia egiteko eta lasai egoteko leku aproposa topatu dudala uste dut. - esan nion.

Bergentino errementariaren etxera joan nintzen. Oso pertsona maitagarria zen eta bere aletegian nire lagunekin jolasten uzten zidan sutegiko hauspoari eragitearen truke. Ondoren berak burdin gorituari mailuz forma emateko.

-Bergentino! - oihukatu nuen- zure laguntza behar dut zikoina bat dakart eta.

-A zer garrasiak ! zer diozu zikoina bati buruz ? - erantzun zidan leihotik.

Bere etxetik irten bezain laster, honela esan nion:

-Bergentino, hau da urtero elizako kanpandorrera etortzen den zikoina.

Aurten teilatua konpontzen ari direnez, habia kendu egin diote eta ezin izan du han gelditu. Benitoren teilatura joan da baina harrika bota du; ondoren Lumi andrearen teilatura abiatu eta honek ere bidali egin du, eta urtegi gainean habia eraikitzen ari zela, Kasimirok eta Tomasek ere harriak jaurti dizkiote alde egin zezan.

-Eta orain, zer nahi duzu ? - galdetu zuen Bergentinok.

-Pentsatu dut, agian... axola ez bazaizu, habia zure aletetikoko teilatuan egin dezakeela, honela han ale guztiak zanpa-zanpa jaten ibiltzen diren sagutxoak jango lituzke eta.

-Ondo deritzot, bai jauna! - erantzun zuen Bergentinok. Eta beldurturik zegoen zikoinarengana hurbildu eta esan zion:

-Ez izan beldurrik, ez dizut minik egingo. Nire aletetikoko teilatuan gera zaitezke baina horren truke, hemen aurkituko dituzun sagutxoak jatea eskatuko dizut. Zer deritzozu? Hau bion onerako izango litzateke.

Zikoinak goruntz begiratu eta teilatu eder bat ikusi zuen. Azkenean bere habia egin zezakeela ikusita oso pozik jarri zen eta bere mokoaz: "ke, ke, ke"..., hotsak egin zituen eskerrak eman nahian.

Bergentino ere poztu egin zen, handik aurrera ez zen bakarrik biziko eta.

Bergentinorekin joaten nintzen egunero zikoina ikustera eta batzuetan aletegi inguruan zebiltzan saguak harrapatzen ikusten genuen. Guk makiltxoak eramaten genizkion, habia eraikitzeko uzten genion guztia ondo zetorkion eta.

Zikoikumeak jaio zirenenan, Bergentinok prismatikoak utzi zizkidan hauek gertutik ikusteko. Zoragarriak ziren! Zikoinak bazekien nik lagundu niola eta horregatik "ke, ke, ke, ..." eginez agurtzen ninduen. Eta harrezkero, urtero, Bergentinoren aletetikoko teilatura etortzen da, elizako teilatua konponduta egon arren . Badatorrela ikusten dudanean ziztu bizian joaten naiz berarengana.

Erantzun ondorengo galderak:

- Zer sentitzen du zikoinak habia kendu diotela ikusten duenean?
- Bizilagunek, zergatik ez dute nahi zikoinak habia beraien teilatuan egitea?
- Zikoina zure teilatura etorriko balitz, zuk zer egingo zenuke?
- Zikoinak ez daki bizilagunek zergatik ez duten bera onartzen eta negar egiten du. Besteek baztertzen duten norbait ezagutzen al duzu? Nola uste duzu sentituko dela pertsona hori?
- Bizilagunei, zikoina kanpandorrean egotea ez die axola, baina ez dute ikusi nahi beraien teilatuan. Zergatik?
- Noizbait zikoina bezala, baztertua, sentitu al zara? Zergatik?